

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

567

EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 21ekoa, Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariarena, nekazaritza-ekoizpen primarioko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzen Balorazio Batzordea osatuko duten pertsonak izendatzen dituen (Handitu Innova 2024 programa).

Ikusi da Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2024ko urriaren 15eko Aginduaren 8. oinarriaren 2. paragrafoa. Agindu horren bidez, nekazaritza-ekoizpen primarioan berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzen oinarriak onartu ziren 2024rako (Handitu Innova 2024 programa). Bertan, hau ezartzen da: «Inbertsio-eskaerak ebaluatu eta baloratzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko lau pertsonak osatuko dute. Horietako bat Enpresa Programaren arduraduna izango da, bigarrena Elikagaien Ikerketa eta Berrikuntza Programaren arduraduna, hirugarrena elikagaien industriaren arloan eskumena duen zuzendaritzako teknikarien artean aukeratuko da eta laugarrena Hazi Fundazioko ordezkari bat izango da. Elikagaien industriaren arloko zuzendaritza eskuduneko titularraren ebazpen bidez izendatuko dira pertsona horiek. Ebazpen horretan, batzordeko idazkaria eta lehendakaria izendatuko dira, bai eta ordezkokoak ere, Balorazio Batzordea osatzen duten pertsona guztientzat, zuzendaritza horretako teknikarien artean aukeratuta. Batzordearen osaera EHAA-n argitaratuko da, Batzordea eratu aurretik».

Ikusi da 438/2024 Dekretua, abenduaren 11koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

EBAZTEN DUT:

Hauek izendatzea Balorazio Batzordeko kide. Batzorde horrek laguntza-eskabideak aztertu eta ebaluatuko ditu 2024. urterako, eta aipatutako aginduaren 8.5 oinarrian aurreikusitako txostena egingo du. Laguntza horietarako deialdia Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2024ko urriaren 15eko Aginduaren bidez egin zen. Agindu horren bidez, nekazaritza-ekoizpen primarioko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzen oinarriak onartu ziren 2024rako (Handitu Innova 2024 programa).

Aurrekoaren arabera, hauek osatuko dute Balorazio Batzordea:

Elisa Torre-Enciso Enciso andrea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Enpresa Programaren arduraduna; batzordeburua izango da.

M.^a Luisa Fraile Correa andrea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Ikerketa Programaren arduraduna; idazkari jardungo du.

Eduardo Castillo Diaz jauna, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria.

Mentzia Otxoa de Zuazola Zabala andrea, Hazi Fundaziokoa.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 21a.

Elikagaien Politika eta Industriako zuzendaria,
IKER IGLESIAS EGUÍA.